

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

318

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena, administrazio-espeditentea bidali egiten dela jakinarazteko eta prozeduran interesaturiko pertsonak epatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 682/2014 zk.ko prozedura arruntari buruzko administrazio-espeditentea bidaltzeko eskatu du. Prozedura hori Estatuko Administrazioak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 22ko Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ondoriozkoa da (Agindua, 2014ko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, deialdia egiten duena 2014-2015 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzetarako eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beketarako; 2014ko uztailaren 23ko EHAA, 139. zk.).

Hori dela eta, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 49.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatutako espeditentea bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira.

Bigarrena.– Prozeduran interesdun izan daitezkeenak epatzea, hain zuzen ere, euren interesak defendatzeko egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean aipatutako prozeduran pertsonatu daitezten, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 7a.

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria,
JOSU AGUIRRE GOITIA.